

Emakume eta gizonen  
berdintasunerako **Euskal  
Saskibaloia Federazioaren**  
Berdintasun Plana





## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	5
2. Analisia .....	6
2.1 Egitura.....	6
2.2 Komunikazio arloa.....	10
2.3 Kirol arloa .....	14
3. Plana.....	24
A. Egitura.....	24
B. Komunikazio arloa.....	25
C. Kirol arloa .....	26
4. Adierazleak.....	27
5. Kronograma .....	28



## TAULA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

### TAULAK

1. Zuzendaritza-batzordeko osaera sexuaren arabera .....	6
2. Batzarreko osaera sexuaren arabera.....	7
3. Federazioko batzordeetako osaera sexuaren arabera.....	8
4. Lizentzia kopuruaren eboluzioa sexuaren arabera .....	14
5. Lizentzia kopuruaren eboluzioa 2003/2004-2007/2008 sexua eta mailaren arabera.....	15
6. Teknikari lizentzien kopurua 2007/2008.....	17
7. Emakumeek eta gizonek entrenatzen dituzten emakumeen eta gizonen taldeak 2007/2008 .....	19
8. Epailen lizentzien kopurua maila eta sexuaren arabera 2004/2005-2006/2007 .....	20
9. Mahaieko ofizialen banaketa maila eta sexuaren arabera 200/2005-2006/2007 .....	22
10. Arbitraje-tasak 2007/2008.....	23



## IRUDIAK

1. Emakume eta gizonen portzentaia Zuzendaritza-batzordean .....	6
2. Emakume eta gizonen portzentaia Batzarrean .....	7
3. Emakume eta gizonen portzentaia federazio-batzordeetan .....	9
4. Euskal Saskibalo Federazioko web orriaren aurkezpen orria .....	12
5. ESFren web orriko "selektzioak" atala .....	13
6. Kirol lizentzien portzentaia sexuaren arabera 2007/2008 .....	14
7. Kirol lizentzien banaketaren eboluzioa maila eta sexuaren arabera 2003/2004-2007/2008.....	15
8. Emakumeen lizentzien eboluzioa mailaren arabera.....	16
9. Gizonen lizentzien eboluzioa mailaren arabera .....	17
10. Teknikarien portzentaia 2007/2008.....	18
11. Teknikarien lizentzien banaketa maila eta sexuaren arabera .....	18
12. Emakumeek eta gizonek entrenatzen dituzten emakumeen eta gizonen taldeak.....	19
13. Kirol-epaileen portzentaia sexuaren arabera 2006/2007 .....	20
14. Kirol-epaileen lizentzien eboluzioa sexuaren arabera 2004/2005- 2006/2007 .....	21
15. Mahaieko ofizialen portzentaia sexuaren arabera 2006/2007 .....	21



## 1. Sarrera

Euskal Autonomi Erkidegoak badu jada berdintasunerako politika publikoetan ibilbide bat egina. 1988an Emakunde sortu zenetik gaur arte, Gobernu Kontseiluak emakume eta gizonen berdintasunerako ekintza positiboko lau plan onartu ditu eta hauetan guztietan kultura eta kirola esku-hartzeko eremuak bezala ageri dira.

Era berean, Euskadiko kirol araudietan emakume eta gizonen berdintasunerako egiten diren aipamenak ugartuz doaz, emakumeak kirol jardueran hastearen garrantzia azpimarratzeaz gain (Kirolaren Euskal Legea 14/1998), kirol federazioei emakume eta gizonen berdintasunerako *ekintza positiboko planak egin, onartu eta burutu* behar izatea ere aipatzen du (Euskal Kirol Federazioen Dekretua 16/2006, XIV Izenburua, 169. artikulua).

2007ko ekainean Eusko Jaurkaritzak euskal kirol federazioetan emakume eta gizonen berdintasuna ziurtatuko duen proiektua abian jarri zuen eta proiektuaren ardatza federazioetan Berdintasunerako Planak egitea da, hain zuzen ere. Euskal Saskibaloia Federazioak berdintasuna sustatzeko borondatea azaldu du berdintasun plana burutzeko nahiaren bidez.

Euskal federazioen esparruan pausu garrantzitu bat da honako hau, euskal kirol federazioetan emakume eta gizonen aukera berdintasuna lortzeko helburuarekin aro berri bati hasiera ematen baitzaio.



## 2. Analisia

### 2.1 Egitura

#### Zuzendaritza-batzordea

Egun Euskal Saskibaloia Federazioko Zuzendaritza-batzordea 14 pertsonen osatzen dute, emakume 1ek eta 13 gizonen hain zuzen.

1 Taula. Zuzendaritza-batzordeko osaera sexuaren arabera


KARGUA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Presidentetza		1
Presidenteordetza eta Diruzaintza		1
Idazkaritza Orokorra		1
Bokala	1	10
GUZTIRA	1	13

ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Zuzendaritza-batzordeko emakume bakarra bokala da, botereko karguak gizonen dituzte.

Kirol-lizentzien portzentaia ez da hain desorekatua (62% gizonak, 38% emakumeak), beraz, harrigarria da Zuzendaritza-batzordean emakumeen portzentaia soilik %7 izatea, gizonena %93 izanik.

1 Irudia. Emakume eta gizonen portzentaia Zuzendaritza-batzordean



ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa



Federazioa zuzendaritza organo honetan emakumeen kopurua areagotzen saiatu beharko litzateke batetik, legea betetzeko, eta bestetik, modernotasunaren eredugarri izateko berdintasunari dagokionean.

## Batzarra

Euskal Saskibaloia Federazioko Batzarra, 2005ean sortutakoa, 40 pertsonen osatzen dute, 6 emakumek eta 34 gizonen hain zuzen. Honako hau da ordezkartzaren banaketa:


2 Taula. Batzarraren osaera sexuaren arabera

ESTAMENTUA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Klubak	4	24
Teknikariak	0	4
Epaileak	1	3
Kirolariak	1	3
GUZTIRA	6	34

ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Batzarreko emakume gehienak (4) elkarteetako ordezkariak dira, baina epaile (1) eta kirolarien (1) estamentuan ere parte hartzen dute. Ez dago emakume bakar bat bera ere teknikarien estamentuan. Orohar, emakume eta gizonen partaidetza Batzarrean %20 eta %80 dira hurrenez hurren.

2 Irudia. Emakume eta gizonen portzentaia Batzarrean



ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa



Ezinbestekoa da federazioa emakume eta gizonen kopurua berdintzen saiatzea, gutxienez, bere esku dauden estamentuen ordezkapenak izendatzean.

Egun Batzarrean 28 euskal elkarte daude ordezkaturak. Derrigorrezkoa da lurraldeko batzarreko kide izatea, baina ez, euskal lehiaketan jokatzeko aritza. Klubak irizpide horien arabera aurkezten dira Batzarreko ordezkari izateko; ezarritako kupoa baino elkarte kopuru handiagoa aurkeztuz gero, hauteskundeak ospatzen dituzte.

### Federazioko beste batzordeak

Federazioan dauden beste batzordeetan guztira 14 pertsonak parte hartzen dute, 2 emakumek eta 12 gizonak hain zuzen.

### 3 Taula. Federazioko batzordeetako osaera sexuaren arabera

BATZORDEA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Teknikarien Batzordea	0	3
Epailen Batzordea	0	5
Lehiaketa Batzordea	0	3
Apelazio-Batzordea	2	1
GUZTIRA	2	12

#### ITURRIA: Euskal Saskibaloia federazioa


Batzorde guztietan daude gizonak, batik bat epailen batzordean; emakumeak soilik apelazio-batzordean daude.





Orohar, emakumeen partaidetza batzordeetan %14 da eta gizonena %86.

### 3 Irudia. Emakume eta gizonen portzentaia federazio-batzordeetan



#### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Zuzendari teknikoa presidenteak izendatu zuen, aitzitik, batzorde teknikoko eta epaileen batzordeko bokalak lurraldeetako batzordeetako presidenteak dira. Horiek norbere presidenteak (lurraldeetakoek) izendatzen dituzte.

#### Federazioko langileak

Egun hiru pertsona daude Euskal Saskibaloia Federazioan lanean, guztiek ere, lanaldi osoan dihartute. Bat idazkaria da, gizona, eta beste biek, neska bat eta mutil bat, administrazio lanak burutzen dituzte. Idazkaria duela hamabost urte hasi zen federazioan lanean, administrariak aldiz, duela hiru urte.

#### Selekzioetako entrenatzaileak

Selekzioetako arduradun guztiak gizonak dira. Hamar gizonek emakume eta gizonen selekzio guztiak entrenatzen dituzte honako mailetan; alebin txikia, infantila, kadetea, 20ez behekoa (unean unean) eta absolutua. Lan hori burutzen denbora gehien daramanak bost urtez egin du, eta gutxien egon denak, urtebete. Normalean selekzioek ez dute entrenatzen, baina Autonomia Erkidegoetako Estatuko Txapelketak edo antzekoak gerturatzen direnean zenbait entrenamendu antolatzen dira.



## 2.2 Komunikazio arloa

### Hizkuntza idatzia

Aztertutako dokumentuetan (inprimakiak, zirkularrak, lehiaketa-oinarriak) orohar, maskulinoa erabiltzen da:

- *Muy señor nuestro* (gutunetako eta mezu elektronikoetako agurra)
- *Los jugadores anteriormente citados* (agiri batean gainera, jokalaria guztiak emakumeak izanik, inkongruentzia litzateke)
- *DNI de directivos*
- *Autorización paterna*

Lehiaketa-oinarrietan badago nahastea sor lezakeen atalen bat: "*Participantes: 20 niños y 20 niñas por cada una de las Federaciones Territoriales en cada una de las categorías, distribuidos en dos equipos de 10 jugadores en cada uno de los géneros y por cada Federación*".

...Hobeto idatzi zitekeen, esaterako: "*Un equipo de diez personas por sexo y categoría en cada Federación Territorial*"; "*cada Federación Territorial podrá presentar dos equipos por categoría, uno de cada sexo, y con un máximo de 10 deportistas en los mismos*",....

Hizkuntzaren erabilera egokia egiten den kasuetan, gehien erabiltzen den estrategia desdoblamendua da (*Sr./a Presidente/a*), baina dokumentu berean agurra maskulinoa da erabat (*muy Sr. nuestro*). Egokia litzateke dokumentu berean irizpide berbera erabiltzea.

Honen harian beste adibide bat web orria litzateke: goiko menu-barran entrenatzaile eta epaile hitzak maskulinoan daude (*entrenadores, árbitros*) eta



behin entrenatzaileen atalean sartuz gero ikastaroei buruzko informazioan “*formación de técnicos/as*” agertzen da.

Bestetik, barrak erabiltzen direnean beharrezkoa da modu egokian erabiltzea:

- “*Estos doce jugadores/as*”. Barrak generoa duten hitz guztietan jarri beharko lirateke.

Azkenik, Estatutuei dagokienez, maskulinoa (*presidente, los representantes*) zein bikoizketa (*técnicas y técnicos, juezas y jueces, federados y federadas, presidente o presidenta*) erabiltzen da.

## **Irudiak**

Web orrian emakume zein gizonen irudiak agertzen dira. Web orri honek ez duenez argazkien galeria bat, agertzen diren irudiak hasierako orrialdeko berrietakoak dira. Emakumeen zein gizonen saskibaloari buruzko berriak eskaintzen diren bitartean, aspektu hau zaindua egongo da.

## **Beste zenbait gauza**

Webeko hasierako orrialdean emakumeen saskibaloari buruzko berriak daude:



Emakume eta gizonen berdintasunerako plana

## 4 Irudia. Euskal Saskibaloia Federazioa web orriaren aurkezpen orria

The screenshot shows the website interface with the following elements:

- Navigation:** EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA, CONTACTA CON NOSOTROS, Inicio, Basketbasko, Normativa, Selecciones, Entrenadores, Árbitros, Disciplina, Secretaria, Enlaces.
- ZONA PRIVADA:** Login and password fields with an 'Entrar' button and a 'Ha olvidado la clave' link.
- CALENDARIO ACTIVIDADES:** A calendar for February 2008 showing dates 1 through 29. A note states: 'No se ha encontrado ningún evento en los próximos días'.
- DESTAGAMOS EN PORTADA:** Article titled 'Bera Bera gana en la prórroga no cede terreno con la segunda plaza'. Text: 'La superioridad de Ibatzabal sigue siendo manifiesta mientras el resto de la Primera Femenina está que arde con el Bera Bera sacando adelante un complicado choque en la prórroga y el resto de equipos cumpliendo. El Tabirako sigue la estela tras ganar a Ob'. Includes a photo of a player and a 'Más Detalle' link.
- COMPETICIONES:** A list of leagues: BASKETBASKO, FEB, ACB, FIBA, MEA, GUIPUZCOA, ALAVA, VIZCAYA.
- NOTICIAS Y NOVEDADES:** Article dated 18-02-2008 titled 'Urdaneta supera al Zornotza y deja mas abierta la lucha por la A1 en su grupo'. Text: 'La penúltima jornada de la primera fase en Primer Masculina ha aclarado pocas cosas en el grupo A donde seis equipos luchan por tres plazas con Zornotza y Urdaneta como los mejor posicionados para ello. En Autonomica, el Patronato sorprende al Bideintza v Askartza hizo lo propio con el'. Includes a photo and a 'NUEVO' badge.
- PATROCINADORES:** Logos for Borden and austral.

ITURRIA: [www.basketbasko.com](http://www.basketbasko.com)

Aipatu behar den beste aspektu positiboa informazioaren ordena da, esaterako “selekzioak” atalean, emakumeen informazioa gizonenaren aurretik agertzen da.



Emakume eta gizonen berdintasunerako plana

## 5 Irudia. Euskal Saskibaloia Federazioa web orriko "selekzioak" atala

The screenshot shows a web browser window displaying the website [www.basketbasko.com](http://www.basketbasko.com). The page is titled "Selecciones femeninas" and is part of the "Selecciones / SELECCIONES FEMENINAS" section. The main content area features a news article with the following text:

**Selecciones femeninas**  
Euskadi

La Selección de Euskadi Femenina jugará un partido Internacional contra la Selección de Japón el próximo 22 de junio de 2006 a las 17:30 horas, en el Polideportivo La Casilla de Bilbao.

La Selección de Euskadi Senior Femenina vuelve a disputar un encuentro Internacional. En esta ocasión el rival elegido es Japón, una Selección en auge, que ha logrado clasificarse para los Mundiales y los Juegos Olímpicos, siendo cuartas de Asia.

El Seleccionador Luis Ledesma ha convocado para esta ocasión a las siguientes jugadoras:

- > Maitena Vega (Irlandesas)
- > Rakei Delgado (Txingudi)
- > Amaia Huerta (Tabirako)
- > Estefanía Pérez (Irlandesas)
- > Estitxu Ibarreche (C.B. Arxil-Comervia)
- > Laura Navas (Ibatzabal)
- > Julene Olaberria (Atletico SN.SN.)
- > Amaia Mendiolegaray (Tabirako)
- > Maixa Garro (Tabirako)

The sidebar on the left contains sections for "SELECCIONES" (with links to "Selecciones femeninas", "Selecciones masculinas", and "Tecnificación"), "ZONA PRIVADA" (with "Login:" and "Clave:" fields and an "Entrar" button), and "CALENDARIO ACTIVIDADES" (showing a calendar for February 2008).

ITURRIA: [www.basketbasko.com](http://www.basketbasko.com)



## 2.3 Kirol arloa

### Kirolariak

2007/2008 denboraldian Euskal Saskibaloia Federazioak guztira 8.917 lizentzia izan ditu, 3.417 emakumeenak eta 5.500 gizonenak.

#### 4 Taula. Lizentzia kopuruaren eboluzioa sexuaren arabera


	EMAKUMEAK	GIZONAK
2003-2004	3.960	5.116
2004-2005	4.058	5.185
2005-2006	4.078	5.197
2006-2007	3982	5723
2007-2008	3417	5500

\* Kontutan hartu diren lizentziak: kadeteak, jubenilak eta seniorrak.

#### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Gizonen partaidetza emakumeena baino handiagoa da, guztira %62 eta %38 izanik hurrenez hurren.

#### 6 Irudia. Kirol lizentzien portzentaia sexuaren arabera 2007/2008



#### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Hala ere, azpiko kategorietan, kadete eta jubeniletan, emakumeen lizentzia gehiago egon dira 2003/2004 eta 2005/2006 denboraldi-tartean. Aitzitik, azken bi denboraldietan emakume eta gizonen lizentzien kopurua orekatuagoa izan da.




### 5 Taula. Lizentzia kopuruaren eboluzioa 2003/2004-2007/2008 sexua eta mailaren arabera

	KADETEA		JUBENILA		SENIORRA	
	E	G	E	G	E	G
2003-2004	1718	1110	919	928	1323	3078
2004-2005	1683	1190	1043	949	1332	3046
2005-2006	1631	1182	1059	933	1388	3082
2006-2007	1487	1440	1024	1111	1471	3172
2007-2008	1021	1147	961	1013	1435	3340

ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Denboraldi guztietan zehar gizonen lizentzia gehienak senior mailan bildu dira, aldiz emakumeen kasuan, 2007/2008 denboraldia salbu beste guztietan, kadete mailan izan da lizentzia gehien; denboraldi honetan emakumeen lizentzia gehienak senior mailan aurkitzen dira. Halaber, aipatu behar da emakumeen kadete mailako lizentzien kopuruak behera egin duela gutxinaka, beherakada nabarmenena (466 lizentzia) 2006/2007 denboralditik 2007/2008 denboraldirako saltoan aurkitzen delarik.

### 7 Irudia. Kirol lizentzien banaketaren eboluzioa maila eta sexuaren arabera 2003/2004-2007/2008




ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa



Kirol ibilbideari dagokionez, bi sexuen lizentzia kopuruan beherakada nabari da kadete mailatik jubenil mailara pasatzean. Emakumeen kasuan, 2003/2004 eta 2006/2007 denboraldi artean %46 eta %31 bitarteko beherakada gertatu da. Orain dela bost denboraldi portzentaia handiagoa izan arren eta beheranzko joera izan duen arren, nahiko zifra altua da kirol jarduera bateko maila batetik besterako saltoan gertatzeko.

### 8 Irudia. Emakumeen lizentzien eboluzioa mailaren arabera



### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

María Solar, federazioko administrariaren hitzetan, neska gazteek batez ere lagunengatik jarraitzen dute jokatzeko kadete kategorian. Baina gutxinaka, norbere kirol-maila eta besteenaren artean ezberdintasunak ikustean, edota hainbeste ez dutela jokatzeko ikustean, motibazio falta izaten dute eta nahiago izaten dute denbora beste gauza bat egiten pasatzea. Normalean oso zaleak direnak jarraitzen dute jokatzeko.


Bere ustez kirol elkarteak saiatzen dira emakumeen partaidetza sustatzen, baina azken finean neskak berak izaten direla kirola uztea erabakitzen dutenak.

Kadete mailatik jubenilerako aldaketan mutilen lizentzien beherakada ez da nesken hainakoa; kasu honetan %16 eta %22 artekoa da (2003/2004-2006/2007 denboraldiak). Hala ere, zifra altuagoa da azken denboraldietan.





## 9 Irudia. Gizonen lizentzien eboluzioa mailaren arabera



ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Datuen arabera esan daiteke, gizonek urte gehiago egiten dituztela saskibaloian jokatzeko, izan ere, senior mailan biltzen diren gizonen kopurua 18 urtetatik aurrera saskibaloira jokatzeko duten emakumeen bikoitza baita.

### Teknikariak

Egun Euskal Saskibaloia Federazioak teknikarien 973 lizentzia ditu, 110 emakumeenak eta 863 gizonenak izanik. Zuzendaritza organoetan gertatzen den moduan, emakume eta gizonen partaidetzan alde handia dago.

6 Taula. Teknikari lizentzien kopurua 2007/2008


	E	G	GUZTIRA
Seniorra	43	452	495
Jubenila	25	203	228
Kadetea	42	208	250
GUZTIRA	110	863	973

ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa



Orohar, %11 emakumeak dira eta %89 gizonak.


### 10 Irudia. Teknikarien portzentaia 2007/2008



### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Senior kategorian antzematen da emakume eta gizonen arteko ezberdintasun handiena.

### 11 Irudia. Teknikarien lizentzien banaketa maila eta sexuaren arabera



### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Teknikari hauek entrenatzen dituzten taldeak (emakumeenak edo gizonenak) aztertuz gero antzeman daiteke gizonen taldeak entrenatzen dituzten gizonen kasua dela ugariena, bigarren, emakumeen taldeak entrenatzen dituzten gizonak izanik.




### 7 Taula. Emakumeek eta gizonek entrenatzen dituzten emakumeen eta gizonen taldeak 2007/2008

ENTRENATUTAKO TALDEA	Kopurua
Emakumeak gizoni	7
Emakumeak emakumeei	103
Gizonak emakumeei	310
Gizonak gizoni	553
<b>GUZTIRA</b>	<b>973</b>

ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Apenas dago mutilen taldeak entrenatzen dituen emakumerik, baina azpimarragarriena da, ez dagoela emakumeen taldeetaz arduratzeko nahikoa emakume entrenatzaile.

### 12 Irudia. Emakumeek eta gizonek entrenatzen dituzten emakumeen eta gizonen taldeak



ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa


Ez da derrigorrezkoa emakumeen taldeetako entrenatzaile guztiak emakumeak izatea, baina beharrezkoa da eredu kopurua areagotzea entrenatzaileen artean, hau da, emakumeek entrenatzaile izan daitezkeela ikustea.



## Epaileak eta y Mahaieko ofizialak

Egun Euskal Saskibaloia Federazioan epaileen 170 lizentzia daude, horietatik soilik 5 izanik emakumeenak, hots, %3.

### 13 Irudia. Kirol-epaileen lizentzien portzentaia sexuaren arabera 2006/2007



### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Emakume gutxi egoteaz gain, hauen partaidetza soilik lehen mailako eta azpiko ligetara mugatzen da. Ez dago emakumeen lizentzia bat bera ere emakumeen zein gizonen kategorian absolutuetan.

### 8 Taula. Epaileen lizentzien kopurua maila eta sexuaren arabera. 2004/2005-2006/2007

	2004/2005		2005/2006		2006/2007	
	E	G	E	G	E	G
ACB	0	3	0	3	0	3
GR1*	0	4	0	4	0	4
GR2*	0	8	0	7	0	7
GR3*	2	42	2	44	2	47
GR4*	3	43	3	42	1	37
Probintziala	1	67	3	55	2	67
<b>GUZTIRA</b>	<b>6</b>	<b>167</b>	<b>8</b>	<b>155</b>	<b>5</b>	<b>165</b>


\* GR1 (LEB eta emakumeen liga); GR2 (EBA eta emakumeen 2en liga); GR3 (emakume eta gizonen lehen maila) eta GR4 (gizonen autonomia maila eta emakumeen bigarren maila).

### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa



Lizentzia kopurua nahiko egonkorra izan da azken urteetan.


#### 14 Irudia. Kirol-epaileen lizentzien eboluzioa sexuaren arabera 2004/2005-2006/2007



#### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Mahaiko ofizialen lizentziei dagokienez, egun federazioak 186 lizentzia ditu, 82 emakumeenak eta 104 gizonenak, hau da, %44 eta %56 hurrenez hurren.

#### 15 Irudia. Mahaieko ofizialen portzentaia sexuaren arabera 2006/2007



#### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Emakumeen kopuru handiena autonomia mailan aurkitzen da, hau da, epaileen maila baxuenean. Hala ere, emakumeen lizentzia gehien dituen hurrengo taldea ACB liga da, estatu mailako gizonen maila gorenean hain zuzen.



**9 Taula. Mahaiko ofizialen banaketa maila eta sexuaren arabera.  
2004/2005-2006/2007**

	2004/2005		2005/2006		2006/2007	
	E	G	E	G	E	G
ACB	5	3	9	7	10	12
LEB	2	6	3	5		
LF	0	0	0	0	0	2
LF2	2	6	2	14	0	8
EBA	1	6	0	4	7	5
Nazionala	9	24	21	8	3	10
Autonomiakoa	6	14			62	67
Probintziala	22	49	23	44		
<b>GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>108</b>	<b>23</b>	<b>44</b>	<b>82</b>	<b>104</b>

**ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa**

Federazioko langileek diote egokia litzatekeela emakume epaileen atzitze-kanpaina bat egitea, baina ez dute uste emakumeek epaile izateko interesa handirik izango luketeenik.

Kontuan hartu beharreko beste auzi bat partidetarako arbitraje-tasak dira. Azkpiko kategorietan emakume eta gizonen partidak berdin balio duten arren, Lehen Mailan mutilen partidak epaitzeak gehiago balio du.



### 10 Taula. Arbitraje-tasak 2007/2008

2007/2008 DENBORALDIA	ARBITROA		ARBITROA DIETA		MAHAIA DIETA
	ARBITROA	MAHAIA	ARBITROA	DIETA	
LEHEN MAILA GIZONAK	77,5	17,5	7,30*	7,30*	7,3
LEHEN MAILA EMAKUMEAK	66,55	16,2	6,20*	6,20*	6,2
AUTONOMIA MAILA	35,4	11	3,65*	3,65*	3,65
BIGARREN MAILA EMAKUMEAK	24,4	9,5	3,65*	3,65*	3,65
EUSKALKOPA GIZONAK	77,5	17,5	7,30*	7,30*	7,3
EUSKALKOPA EMAKUMEAK	66,55	16,2	6,20*	6,20*	6,2
EUSKAL LIGA JUBENILA	18,45	8	3,20*	3,20*	3,2
EUSKAL LIGA KADETEA	15,1	7	3,20*	3,20*	3,2
EUSKADI TXAPELKETA JUB.		8			3,2
EUSKADI TXAPELKETA KAD.		7			3,2
EUSKADI TXAPELKETA INF.		7			3,2
EUSKADI TXAPELKETA MINIS.	15,1	7	3,20*	3,20*	3,2

#### ITURRIA: Euskal Saskibaloia Federazioa

Federazioko langileek diote aspaldi ezarritako prezioak direla eta urtero aldatzen den bakarra KPla dela.

Federaziotik berdintasuna sustatzeko ildoari jarraituz, bi ligek prezio bera izan beharko lukete emakumeen eta gizonen partidei garrantzia bera emateko. Halaber, litekena da arbitroen partidetarako izendapenetan liga batekiko edo bestearekiko lehentasunak sahiestea.



### 3. Plana

#### A. Egitura

HELBURUA	
Gutxinaka ESFko iritzi eta erabaki hartze egituretan emakumeen partaidetza areagotzea	
ESTRATEGIAK	A.1 Zuzendaritza-batzordean gutxieneko kuota bidezko sistema bat ezartzea 4/2005 Legeak eta 2008ko urtarrilak 28ko Hauteskunde Prozesuetarako Aginduak esaten dutenaren arabera.
	A.2 Federaziotik izendatzen diren batzarreko estamentuetan (kirolariak, teknikariak eta epaileak) partaideen %50 emakumeak izatea.
	A.3 Selekzioetako teknikarien lan-taldeetan emakumeak izendatzea





## B. Komunikazio arloa

HELBURUA		
Berdintasunerako komunikazioa ziurtatu, hizkuntza eta irudien erabilpen sexista gaitzetsiz		
ESTRATEGIAK	SENTSIBILIZAZIOA	B.1 Berdintasunerako komunikazioaz arduratuko den pertsona bat izendatu eta bere funtzioak zehaztu.
		B.2 Trebakuntza ikastaro bat jaso (langile guztiek)
		B.3 Plana lurraldeko federazioen eta EAeko klubuen artean zabaldu
	HIZKUNTZAREN ERABILERA	B.4 Gutunentzat, posta elektronikoentzat, prentsa-oharrentzat eta inprimakientzat komunikazio ez sexistako eredu bat ezarri
		B.5 Araudiak aldatu
		B.6 Eguneroko jardueran erabiltzen diren dokumentuak aldatu
	IKUSTARAZI	B.7 Web orrian, tripotiko eta liburuxketan, eta argazkien galerietan emakume zein gizonen irudiak jarri



## C. Kirol arloa

HELBURUA	
Gizonen eta emakumeen partidei garrantzia berbera ematea	
ESTRATEGIAK	C.1 Lehen Mailako arbitraje-tasak berdintzea.
HELBURUA	
Kadete eta jubenil mailen artean emakumeen kirol uztea gutxitzea	
ESTRATEGIAK	C.2 Jubenil taldeen izen-emate tasa merketzea.
	C.3 Kadete mailako neskei galdeketa bat egitea beren asmoei buruz galdetzeko eta kirola uzteko arrazoiak zein diren jakiteko. Honek nesken beharretara egokitzen den kirol eskaintza bat egitea ahalbidetu dezake.
	C.4 Aldian-aldian, web orrian emakume jokalaria, entrenatzaile edo epaile bati egindako elkarrizketa argitaratzea gertuko ereduak sorrarazteko.
	C.5 Urtero, kirol eremuan emakumeen partaidetza sustatzen saiatzen den elkarte, erakundea edo pertsona saritzea.



## 4. Adierazleak

ARLOA	ESTRAT.	ADIERAZLEAK	
		BURUTU AD.	ERAGIN AD.
EGITURA	A.1	Kuota sistema sortu den ala ez.	Emakumeen presentzia ESFko Zuzendaritza-Batzordean
	A.2	Emakume zein gizonen izendapena	Emakume kopurua areagotzea federaziotik izendatutako batzarreko estamentuetan
	A.3	Emakumeak barneratu diren ala ez	Teknikarien lan-taldean dauden emakumeen kopurua. Teknikari taldean emakumeen portzentaia kopuru osoarekiko
KOMUNIKAZIOA	B.1	Izendapena ala ez	Komunikazioan aldaketak-hobekuntzak
	B.2	Federazioko pertsonaletik ikastaroa egin dutenen kopurua	Komunikazioan aldaketak-hobekuntzak
	B.3	Hedapena: federazio eta elkarteei egindako bidalketa kopurua. Plana hedatzeko egindako ekintzak	Egindako lanagatik jasotako errekonozimendu kopurua
	B.4	Eredua definitu den ala ez	Komunikazioan aldaketak-hobekuntzak
	B.5	Aldaketak egin diren ala ez	Araudietan hizkuntza ez sexistaren erabilera
	B.6	Aldaketak egin diren ala ez	Dokumentuetan hizkuntza ez sexistaren erabilera
	B.7	Irudi kopurua areagotu den ala ez	Emakumeen eta gizonen irudi kopuru bera triptikoetan eta irudien galerietan
KIROLA	C.1	Tarifak berdindu diren ala ez	---
	C.2	Izen-emate prezioa aldatu den ala ez	Izena ematen duten talde kadeteen eta jubenilen areagotzea
	C.3	Inkesta egin den ala ez	Inkestaren ondorioen txostena
	C.4	Elkarrizketak argitaratu diren ala ez	Denboraldi bakoitzean argitaratutako elkarrizketa kopurua
	C.5	Saria sortu den ala ez	---





Emakume eta gizonen berdintasunerako plana

Avento Consultoria S.L. enpresak **Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailerako** eginiko proiektua.

Proiektuko koordinatzailea: **Ainhoa Azurmendi**

Edozein ohar edo iradokizun egin nahi izanez gero, ondorengo posta elektronikora idatz dezakezue: **[aazurmendi@aventoconsultoria.com](mailto:aazurmendi@aventoconsultoria.com)**

Ainhoa Azurmendi



E [info@aventoconsultoria.com](mailto:info@aventoconsultoria.com)  
[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)

Pokopandegi 11  
Oficina 012  
20.018 Donostia – San Sebastián

T 943 317 038  
F 943 317 048